

E R A K U S K E T A

TABAKALERA



no es  
neutral  
ez da  
neutrala

Arte contemporáneo  
Arte garaikidea

BAROS  
LATINAMERICA  
collection

TABAKALERA - Donostia  
2008ko Uztailak 19 - urriak 5

euskara

**EZ DA NEUTRALA** Latinoamerikako arte garaikideenari eta konprometituenari eskainitako erakusketa da. Argentina, Brasil, Txile, Kolonbia, Costa Rica, Kuba, Guatemala, Mexiko, Puerto Rico eta Uruguai 24 artisten lanak biltzen ditu, 60. hamarkadatik gaurdainoko sorkuntza artistikoaren ikuspegi bat eskainiz.

Erakusketako lanek arte garaikidearen ildo nagusiak jarraitzen dituzte, baina nazioarteko panorama artistikoan jarrera propioa hartuz. Erakusten duten bizitzarekiko gertutasuna eta berehalakotasuna azpimarragarriak dira. Baita artista askok azaltzen duten errealtatearekiko konpromisoa ere, beren lanak historiarekiko, egoera politiko zehatzekiko eta biolentziarekiko aurrez aurre jarritz. Dena den, kasurik gehienetan, biolentzia irudi esplizituak alde batera utzi eta elementu estetiko edo poetikoen bidea edo hizkuntza erabiltzen dute baliabide gisa.

Erakusketa hau Daros-ekin, European Latinoamerikako arteari buruzko bilduma garrantzitsuenarekin, aurrera eramandako elkarlanaren ondorio da.

artista parte - hartzaileak:

Juan Carlos Alom,  
Fernando Arias,  
Tania Bruguera,  
Luis Camnitzer,  
Iván Capote,  
Jose Damasceno,  
Antonio Dias,  
Gonzalo Díaz,  
Juan Manuel Echavarría,  
Regina José Galindo,  
Alfredo Jaar,  
Julio Le Parc,  
Rafael Lozano Hemmer,  
Oswaldo Macià,  
Cildo Meireles,  
Priscilla Monge,  
Óscar Muñoz,  
Ernesto Neto,  
Miguel Ángel Ríos,  
Chemi Rosado-Seijo,  
Lázaro Saavedra,  
Valeska Soares,  
Javier Téllez,  
Tonel

Cildo Meireles, Valeska Soares eta Ernesto Neto, Brasilgo artista garrantzitsuenen artean daude eta beren lan esanguratsuenetakoak ikusgai ditugu Tabakaleran. Erakusketaren osotasunean paper nagusia jokatzaren hiru instalazio handi dira, ikuslea lanetan parte hartzera edo artelanaren zati bilakatzera gonbidatzen dutenak.




Cildo Meireles  
*Missão / Missões (Como construir catedrais), 1987.*

*Missão/Missões (Como construir catedrais)*, izaera poitikoa duen Cildo Meirelesen lehen lan monumental da. 6x6 m neurtzen dituen kutxa beltza da, inguru guztian gortina beltzez estalia. Ikuslea barrura sar daiteke, eta lurtean Brasilgo 600.000 txanpon, sabaitik zintzilik 2.000 hezur eta goia eta behearen artean hostiaz osatutako zutabea aurkituko ditu.

Valeska Soaresek, *Vanishing Point* izeneko instalazioan, sentsualtasuna eta izaera barrokoa arte minimalistarekin uztartzen ditu eta Ernesto Netok, artelanean sartzeko gonbidapena egiten digu bere *Humanoide*-ekin.



Óscar Muñoz - *Retrato*, 2003.



Luis Camnitzer - *Mirror*, 1966-68.

**EZ DA NEUTRALA** erakusketako lan multzo garrantzitsu bat arte kontzeptualaren mugetan sar liteke, baina esparru politiko eta sozialarekiko lotura azpimarratuz. Ildo honetan, Latinoamerikako artean aitzindari izan zen **Luis Camnitzer** artista eta teoriarari uruguaiarra. Bai Camnitzer bera, eta baita arte kontzeptualari izaera politiko eta soziala eman dioten beste zenbait artista esanguratsuren lanak ere ditugu erakusketan, horien artean, **Antonio Dias, Ivan Capote, Fernando Arias, Priscilla Monge,** edo **Oscar Muñoz.**

Gatazka politikoetara, biolentziara eta gizarte gaietara hurbiltzen diren artista hauek partekatzen duten beste ezaugarri bat, irudi gordin esplizituei muzin egin eta batik bat, baliabide poetikoak edo hizkuntzari loturikoak erabiltzen dituztela da.

Ikus-entzunezko arteak eta teknologia berriek pisu handia dute **EZ DA NEUTRALA** erakusketan.

Bideo-artean emakumeek paper garrantzitsua jokatu dute, batez ere, performanceari loturik. Horien artean, izenik aipagarrienetakoa **Regina José Galindo** artista guatemalarra da. Tabakaleran, *Limpieza Social* izeneko bideoa aurkezten du.

**Javier Tellez**ek berriz, zentzumenen pertzepzioaz dihardu, pertsona itsuei protagonismoa emanez *La carta de ciegos para aquellos que pueden ver* bideoan. **Lázaro**

**Saavedra** kubatarraren animazioak ironikoak eta garratzak dira eta ezaugarritzat dute oso baliabide urriekin sortuak direla.

**Rafael Lozano-Hemmer** mexikarra berriz, teknologia berrien erabileran nabarmentzen da. *Tensión superficial* izeneko lana instalazioa interaktiboa da; zaintzarako sistema informatiko bat erabiliz, pantailan dagoen begi handiak aurretik igarotzen denaren pausuak jarraitzen ditu etengabe.



Regina José Galindo - *Limpieza social*, 2006.



Rafael Lozano-Hemmer - *Tensión superficial*, 1991-2004.



THIS IS  
NOT  
AMERICA

Alfredo Jaar - *A logo for America*, 1987.



Ernesto Neto - *Humanoides*, 2001.

## **EZ DA NEUTRALA**

### **Daros – Latinamerica collection**


Erakusketa  
2008ko Uztailak 19 - urriak 5

Asteartetik igandera  
11.30-14.00 / 17.00-20.30  
Sarrera doan

Bisita gidatuak  
Asteartetik ostiralera:  
18.00 (euskaraz) -19.00 (gaztelaniaz)  
Larunbata eta igandea:  
12.00 / 18.00 (euskaraz)  
13.00 / 19.00 (gaztelaniaz)

Haurrentzat bisitak:  
larunbat eta igandeetan:  
11.30 (euskaraz eta gaztelaniaz)

Taldeak eta bisitak ingelesez eta  
frantsesez: 608 989 298



 **DONOSTIA 2016**  
SAN SEBASTIAN

 Tabakalera  
Duque de Mandas 52  
20012 Donostia - San Sebastián  
T +34 943 011 311 - 34 943 011 312  
info@tabakalera.eu  
www.tabakalera.eu

-  Kursaal
-  Victoria Eugenia
-  Koldo Mitxelena
-  Renfe

**TABAKALERA**



**EL DIARIO VASCO**

**berria**